

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


ELIKAGAIAK

2018ko URTEKO TXOSTENA

Alerta eta jakinarazpenen kopurua
Jakinarazpenen kategorizazioa
Antzemandako arriskuen jatorria
Antzemandako arriskuak
Azken urteen arteko konparazioa



ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURUA

2018an, Europako Alerta azkarra sistemaren (RASFF) bidez **3196 alerta eta jakinarazpen** jaso dira.



JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA



2018 urtean zehar, elikagaiei buruzko 3196 jakinarazpen izan dira. Horietatik, 1004 (%31,5) **alertak** izan dira, 949 (%29,5) **informazio-jakinazpenak** eta 1243 (%39) **mugan egin diren ukapenak**.



ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, urtean zehar, aipatu behar da **Europak (%43)** eta **Asiak (%30,5)** eragin dituztela jakinarazpen gehienak. Asia eta Amerika jatorria duten jakinarazpen kopurua apurtxo bat jaitسي egin dira 2017 urtearekin konparatuz, Afrikakoak mantendu egin dira eta Europa jatorria zutenen kopurua igo egin da.



Urteko batezbestekoak hurrengoak izango lirateke:



ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


Aurreko urtean bezalaxe, **kutsadura biologikoak** eragin ditu jakinarazpen gehien (%29,55). **Mikotoxinak** dira jakinarazpen gehien sortu dituzten bigarren taldea (%20,5), pasa den urtetik pixkan igo direlarik. Hondakinen kopurua eta iruzurruea mantendu egin da. Metalena, aldiz, apur bat jaitsi egin da.

Hauek dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoka izan duten bilakaera:




.....ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


KUTSADURA BIOLOGIKOaren kasuan, **Salmonella** nabarmendu behar dugu kutsadura biologikoen **%57a** eragin baitu, (%10a gutxitu delarik). Honako hau izan da kutsadura biologikoek izan duten joera:



Badira Salmonella espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* y *S.enteritidis*) eta bestelako Salmonellak, azken hauek, **Salmonella exotikoak**, nabarmendu behar dugularik (**%82**). **Sesamoa** izan da protagonista nagusia (%32a) eta jatorria gehiengo batean afrikakoa izanik (%72). Urteko eboluzioa izan da:




MIKOTOXINEN kasuan, kasu gehienak (**%78,5**) **Aflatoxinek** eragin dituzte, **kakahueteek** kutsadura kasuen **%41,5a** eragin dutelarik.




.... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

PESTIZIDA ETA BOTIKEN HONDAKINEI dagokionez, urteko batez bestekoa kontutan hartuz, **pestizidek %83,5a** suposatu dute, **barazkiak %45a** suposatuz. Asia jatorria izanez kasu gehienetan (**%63,5**). **Botiken hondakinak (%16,5)** eta ez da produkturik nabarmendu besteengan.

Urteko eboluzioa hurrengo hau izan da:



Merkurioa jarraitzen du **metal astunen** protagonista izaten (**%51**), kasu gehienak **ezpatarrainak** eragin dituelarik, **%71,5a**. **España** jatorria izan da **%55eko** kasuetan.



AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Azken urteak alderatuz gero, jasotako alertak zein jakinarazpenak aldatu egin dira urtetik urtera. Halare, azken urteak kontutan edukiz, gorabehera gutxi izan dira. Aldatu diren gauza batzuk: Iruzurrak mantendu dira azken urteotan igo eta gero. Mikotoxinek eragindako jakinarazpenak igo egin dira. Kutsadura fisikoa bikoiztu egin da eta metal astunak gutxitzen doaz. Kutsadura biologikoa, berriz, maila altuan mantentzen da, ia jakinarazpenen hirukoitza suposatuz.

